



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Gari & Maldanbera Arriaga Antzokira itzuliko dira hurrengo zuzeneko disko baten parte izango den kontzertu benetan berezia eskaintzera

- 27 urtez bakarkako ibilbidea egin ondoren, Garik disko batean erregistratu nahi du bere zuzenekoaren magia.
- Emanaldia datorren asteartean izango da, ekainaren 7an, Arriaga Antzokian, 19:30ean.

Bilbao, a 2 de junio de 2022. – Hertzainak taldea atzean utzita, Garik bere senari jarraitu eta abesti propioak lantzeari ekin zion duela 27 urte, 1.995ean. Euria egin du ordutik hona, baina, bitartean, maldanberan jardun du, nor bere gailurra ukitu duela jakin eta jaitsiera gozatuz ekiten dionean. Hortik hartu zuen aspaldian taldearen izena: Gari & Maldanbera. Taldea Arriaga Antzokira itzuliko da, 2019ko otsailean, Gari eta Josu Zabala —bere lagun eta Hertzainak taldeko kide ohia— berriz elkartu zituen agertokira.

Datorren asteartean, ekainaren 7an (19:30ean), Gari bere errepertorioarekin berriz elkartzeko ilusioarekin etorriko da. Pandemia honek erritmo speedikoa bat-batean geratu eta atzera begiratzeko parada eskaini dio Gariri. Horrela, iraganera begiratu eta bere bakarkako ibilbide oparoan izandako hainbat momentu gazi-gozoz erreparatzeko aukera izan du. 'Esperantzara Kondenatua', 'Amets', 'Zaharra Zara Bilbo', 'Astiro eta Amorrutz' edota 'Amapola' euskal herritar askoren soinu bandako parte bilakatu dira azken urteetan, Gariren ahots batzutan xuxurlatuari zein besteetan urratuari esker.

Orain, 27 urteren ostean, bere bakarkako ibilbidearen lehen zuzeneko diskoa grabatuko du, diskotik zuzenerako jauzian gertatzen diren ñabardura guztiak disko batean betikotzeko asmoz. Garik, entzuleengandik gertu, momentu hortan sortzen den magia hori disko batera eramatea erabaki du. Garirekin batera arituko da Maldanbera, bere taldea: Alex Alonso (bateria eta programazioak), Oier Aldekoa (baxua eta teklatuak) eta Miguel Moyano (gitarrak eta teklatura).

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 eta 20 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus